

FUNTSEZKO BALIABIDEAK:

Proiektua arrakastaz garatzeko, funtzezko baliabide batzuk behar ditugu. Lehenik eta behin, teknologia, aplikazioa eta webgunea garatzeko eta mantentzeko. Bigarrenik, talde profesional bat osatu behar da, marketina, logistika eta bezeroarentzako arreta arduraz kudeatzeko. Finantza baliabideak ere ezinbestekoak dira, proiektua abian jartzeko eta martxan mantentzeko.

Horrez gain, gure banaketa-zerbitzua kalitatezkoa eta jasangarria izan dadin, bizikleta eta furgoneta elektrikoak ditugu. Bizikletak hiriguneetan banaketak egiteko erabiltzen ditugu, ingurumen-inpaktua minimizatuz. Furgoneta elektrikoak, berriz, distantzia luzeagoko bidalketak egiteko erabiltzen ditugu, betiere garraio-sistema iraunkor eta eraginkorra bermatuz. Hau guztia gure ingurumenarekiko konpromisoarekin bat dator, eta gure zerbitzuaren kalitatea hobetzen du.

Azkenik, lankidetzak ezinbestekoak dira, denda txikien eta hornitzaileen arteko lotura sendoak ezarriz eta haien parte-hartzea ziurtatuz. Tokiko administrazioen eta merkataritza elkarteen laguntza ere ezinbestekoa izango da gure ekimenaren arrakasta bermatzeko.